

"I. JAUTARKOL OLERKI SARIA" LEHIAKETAN SARITUTAKO LANAK. 1997



Garazi Urdanpilleta "Sorgin"

"I. JAUTARKOL OLERKI SARIA"
BIGARREN SARIA

OROITZAPENEAN BABESTUTAKO DENBORAREN GATIBUA NAIZELAKO

Bekaitz naiz.

Denboraren mende bizi ez den
edo ez dirauen ooren,
denborak suntsitzen, ahitzen
ez duen ooren
bekaitz.

Malkoak idortzen dituen denborak
amodioa ihartzen du,
beroa hozten, eta
monotonia eta ohikeriaren
erritmo mutuen oihartzuna...
hedatzen duen heinean,
bizitzaren metafora akabatzen.
Denborak urteak eramaten ditu,
loreak ximeltzen,
ezkilen kantu errepikakorra ixiltzen,
eta histasun eta malenkonia estali,
eta irria itotzean,
sentipenak hiltzen dizkie
erlojuen taupadak bere
egin dituzten bihotz bakartiei.

Izarrak banan-banan
iraungi ditu eta
azabatxezko izara
beti berdin
bihurtu du gaua,

sorgindurarik, lilurarik,
erromantizismorik gabea.
Hausnarketarako betarik
ez zaigu gelditzen
automatismoaren filosofiak
bere ezpain izoztuen artean
harrapatuta gaituenean.
Ordulari izeneko aparailu hotzen
tik-tak, tik-tak,
doinu monotono, gorkor honen
menpekotasunaz gaindi,
denbora guztietatik at dirauen
poesia dakusat ihespuntu bakartzat.
Eta poesiak zure oroitzapena xuxurlatzen dit
xamur, goxokiro belarrira.
Orduan, bihotzeko xoko izkutu
baten bebesean gordetzen dut
denboraren haizeak ohos
diezadan aurretik,
eta bertan betierekoa
izango da, gomutaren aintzira
ahantzurak ez baitu sekula xukatuko
lausoak itxaropen izpi oro amatatzea
lortzen ez duen artean. ✍



Egoitz Ibarguen "Peerre"

"I. JAUTARKOL OLERKI SARIA"
LEHENENGO SARIA

"REQUIESCAT IN PACE"

Gauak zutaz hitzegin duela diote,
iluntasuneko jaun tristea zarela,
itzalik gabeko semea ...
Erromes nekaezina,
ez malkorik, ez mina.
Zure soinaren azpian,
arratseko azken izpia,
gauaren betirako hazia ...
Lanbro artean bizi baitzara
bere ixiltasunaren erdian ...

...Gaueko laztan zurian hautsi dira,
esperantzarik gabeko malko lehorrak,
eta hasperen egin dut ...
Metal hotzaren zauriaz,
hoztuz doa bizia.
Oheko oihal zurian,
larrosazko ibai gorria,
lausotuz doa guztia ...
Gurutzatua barka nazala
nire azken erabakian ...

... Gauaren iluna irekiz zoaz,
beldurraren ateak joaz,
kanpaikaden soinu geldoaz ...
Irteerarik gabeko kalea,
daukadan bakarra; fedea.

Irrifar ixilaz batera,
jasotzera zatoz honera,
zimelduz doan lorea ...
Nigan egin baituzu
zure azken aukera ...

... Gaueko haize hotzek aurkeztu zaituzte,
zure urratsen doinu baitira
Denak ezagun eta lagunik ez,
nolatan zu hemen? ...
Ikusi ditut zure begiak
eta eman dizut eskua.
Denborak iada ez du ardura,
orratzak betirako gelditu dira.
Iritsi da erreka lakura,
azken untiak jaso du aingura ...

Egunsentiaren lehen ihintzak,
gauaren azken zurrumuruak itzali ditu
eta zu jaun hori, ezin inork aurkitu,
nik bakarrik zaitut sentitu ...
Nondik inorako bidai luzean,
lagun zaitut bidean,
betirako argi amaigabea
iritxi artean.

"Requiescat in pace" entzun da
nire pake unean. ✍



Ion Ansa "Euria"
I. JAUTARKOL OLERKI SARIA
ERRENTERIAKO ONENARI SARIA

MUXU EMAN NIZUNEAN

Nere ahoa bihurritua
zure aho gordinean,
berotasuna pekatu egina
zure hatsaren labean,
barne zentzuak zorabioan
zure listu usainean
nahia beharra, beharra plazer
bihurtu ziren unean
horma ooren ezabatzea
zorionaren bidean
ni ere ume soila bainintzen
zure begien umean;
akats izpirik ezin aurkitu
zure aurpegi politean,
galduko nintzen beldurra nuen
zure irrifar amaigabea,
nire masaila hain zakarra zen
zure kotoizko masailean,
azala dantzan, azala gogor
zure laztanen xumean;
zure eskua nire eskuan
jartzen nuen bitartean
senti nintekeen izar arteko
unibertso zabalean,
eguzkiaren argia zinen
nire bihotz ilunean,

suzko txinparta, kemen zuzia
nire barren indargean;
zure jario oparotik
etengabeko edanean
igeri gozoan banintz bezala
itsas uren leunean
guztia zure, guztia neure
hain batuta ginenean,
besterik ezer ez nuen behar
hain une atseginean;
zure besoen artean,
ezarria nintzenean,
buruak ihes bihotzak taupa
zentzu guztien grinean,
desio hutsa baino gehiago
asea zoramenean,
ezinegona gorputzan barna
su beroa ezpainean;
Jainkoa nintzen, hain goi nengoen
beste guztien gainean,
mundua txiki senti nezakeen
maitea zure mingainean
"maite zaitut" esan zenezan
muxu eman nizunean. ✍